


Erresistentziarako deia



TERE MALDONADO
FILOSOFIA IRAKASLEA



ANTTON OLARIAGA

Filosofia irakasleoi Pentsamendu Kritiko eta Autonomia irakasgai berria ematea tokatu/ko zaigu. Honelako ikasgaia egotearen egokitasuna gogor kuestionatu dut artikulu batean orain gutxi. Arrazoiak ematen saiatu naiz. Ez, besterik gabe, "nire arrazoiak", hor gera daitezen, besteen arrazoiak ondoan, hodeiean betirako pdf batean izoztuta. Arrazoiak ematearen helburua edonork eztabaidatu ahal izatea da. Zailak, korapilatsuak baita itsusiak izanda ere, arrazoiak eskuragarriak izan behar dira. Bestela ez dira arrazoiak. Agian bizipenak, eskarmentuak, emozioak edo sentimenduak bakarrak eta besterenezinak dira, psikologia eta pedagogia zakarrenek aurkezten dituzten bezala behintzat. Nahiz eta, hobeto pentsatuta, ezta haiek ere, Modernitatean *nia* jaio zenetik, musika edo poesia ikusi besterik ez dago, ustez bakarrak eta transferiezinak diren emozio eta sentimenduez gainezka baitaude, egiaz guztiok partekatzen ditugunak (horixe da poema gustuko edukitzea ahalbidetzen duena).

Baina arrazoiak partekatuak izateko berezko bokazioa dute, definizioz ia. Horrek ez du esan nahi gauzak ikusteko modu bakarra dagoenik, jakina (arrazoimenaren "begiekin", esan nahi dut). Baina bai euren zerizana ez dela eremu

publikora ailegatzea bertan gelditzeko betirako, harri bihurtuta. Nik horrela ikusten dut; *nik beste hau pentsatzen dut; bale; agur, bada*. Arrazoiak plazaratzea ez litzateke elkarriketaren amaiera izan beharko, hasiera baizik, izatekotan.

Batek esan dezake (eta *ez arrazoiarik* gabe), egiatan, aurka egiten gaituen norbaiten aurrean argudiatzen dugunean, burua hausten dugula alde aurretik emozionalki atxikitzen gatzazkion zerbaiti arrazoiak *ad hoc* bilatzeko. Habermas agure beneragarriak giza komunikazioaren oinarri ikusten duen "arrazoiak eman eta jasotzeak" mugak ditu. Seguru asko, milaka arrazoi emanda ere, gotzainak ez ditugu inoiz konbentzituko haurdunaldia borondatez etetea ez dela errugabe bat hiltzea, baizik eta norberaren gorputzean eskumena gauzatzea, eta, beraz, emakumeen eskubide. Agian gotzainak ez dira adibiderik onenak, moral bikoitza agertzen baitute sarriegi (azkar esateagatik); esan dezagun auke-ra askearen kontrako fede oneko kristaua. Eta zintzoak izanik: onar dezagun ez dela oso probablea haiek feministarik konbentzitzea ere.

Harira itzuliz: pentsamendu kritikoa, arrazoizko elkarriketa eta eztabaida bultzatu nahi badugu, baita identitate gogoetatsu, arrazoizko eta arraziona-

len eraikuntza ere, Filosofia irakastea bilatu behar dugu, besterik ez, nire us-tez. Bai modu sustantiboan, filosofiaren barruko atalak jorratzen (teoria etikoa, ezagutzaren teoria, etab.), bai filosofia modu adjektiboan ulertuta, Historiaren, Erligioaren, Zientziaren, Musikaren, Psikologiaren, Artearen eta abarraren filosofia landuz. Beste trapura, ordea, ez dugu sartu behar, izen moloiak bilatuz, ustez *sex appeal* handikoak, hutsalke-riaren lehian parte hartzeko, hezkuntza arautua suntsitzen ari dena. (Nafarroan Pentsamendu Kritiko eta Sortzailea deitu diote, EAEn Pentsamendu Kritiko eta Autonomia, nork ematen du gehiago?). Ez diezaiegun kasurik egin sirena kantuei, ez gaitezen labirintoan gal, ez haitzuloaren itzaletan geratu.

Modatik at gelditu eta eutsi gogor, hori da gaur filosofiaren ataza, zeregina eta betebeharra (utzi "erronkak" albo batera, faborez). Ez da esprinta, iraupen-lasterketa da, erresistentzia-koa. Erresistentzia honako hauen aurrean: hiper-psikologizazio, emozioen zentraltasunaren akritiko, edozein prezioztan zoriontasunaren diktadura, publizitatearen inperio, egozentrismo eta nartzismo jasanezin, azalkeria eta arinkeria- ren aurrean. Zutik filosofia irakasleok! Eutsi goiari, kamaradak! ●